



AKTA/ ACTA

Espediente zbk.	Kide Anitzeko Organoa
OSB/2025/5	Osoko bilkura
BILKURA EGITEKO DATUAK	

Deialdi mota:

Arrunta

Data: 2025eko irailaren 30a

Iraupena:

19:00tik 19:30ra arte.

Lekua:

Udalbatza aretoa

Lehendakaria:

ENETZ EZENARRO ARRIOLA

Idazkaria:

NEREA ETXARRI UBEDA

BILKURARA BERTARATZEA		
Identifikazio zenbakia	Izen-abizenak	Bertaratuta
72581191E	Amaia Urrea Mardaraz	EZ
72579288M	Borja Rodriguez Barreras	BAI
15378752D	Dorleta Lazarobaster Arakistain	BAI
15386270Y	ENETZ EZENARRO ARRIOLA	BAI
15391365H	Nerea Isasi Bedayo	BAI
15375878X	Olatz Bizkarguenaga Iñarraiaraegui	BAI
15394255X	Sonia Garcia Raposo	BAI

Idazkariak organoa balioz eratu dela egiaztatu ondoren, lehendakariak bilkurari hasiera eman dio, eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak eztabaidatu ditu.

A) ERABAKI ZATIA	
Aurreko bilkuraren aktaren onarpena	
Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezotasuna/Onespena/





	Unanimidad/Asentimiento
--	-------------------------

Ebazpena/ Resolución:

2025eko ekainaren 24ko bilkuraren akta onartzen da.

440/2025 espedientea. 2026rako Ordenantza fiskalak	
Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento

Egitateak eta zuzenbideko oinarriak/ Hechos y fundamentos de derecho:

Udal honek egokitzat eta beharrezkotzat jotzen du ondorengo tributuen ordenantza fiskaletan hainbat aldaketa egitea:

\

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga,
 - Trakzio Mekanikodun ibilgailuen zerga,
 - Jarduera ekonomikoen gaineko zerga,
 - Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala
 - Instalazio, eraikuntza eta obren gaineko zerga
 - Zerbitzu publikoakeskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea.

Alkatetzak proposatuta, Udaleko idazkari-kontuhartzailearen txostenekin bat etorritik, eta eztabaidatu eta bozkatu ondoren, Antolaketako Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman ondoren Udalbatza, ahobatez

Ebazpena/ Resolución:

LEHENENGOA. Eranskinean azaltzen diren ordenantza fiskalen aldaketa behin-behinean onartzea, proposamenean agertzen den testuarekin:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga,
- Trakzio Mekanikodun ibilgailuen zerga,
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga,
- Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala
- Instalazio, eraikuntza eta obren gaineko zerga
- Zerbitzu publikoakeskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea.

BIGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udaliragarki taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epea, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek pedientea aztertu eta egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal





honen egoitza elektronikoan.

HIRUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

495/2025 espedientea. Taxien urteko tarifak	
Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento

Egitateak eta zuzenbideko oinarriak/ Hechos y fundamentos de derecho:

AGITAX, ASOCIACION GIPUZCOANA DE AUTONOMOS DEL TAXI erakundeak, 2025eko irailaren 9an, Gipuzkoako taxien hiri barruko tarifen eguneraketarako aurkezturiko eskaera aurkeztu zuen Mendaroko Udalean, berrikuspena justifikatzeko agiriekin batera.

Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzaitzak txostena egin du, espedientean jasota dagoena, eta bertan adierazten da egindako eskaera, aurkeztutako dokumentazioa eta tarifa finkatzeko edo aldatzeko arrazoiak egokitzat jotzen direla

Ebazpena/ Resolución:

LEHENENGOA.- Onartzea auto-taxien tarifak, honako zenbateko hauek dituztenak:

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du

2026ko HIRI BARRUKO TARIFAK

Tarifa 1 (* Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte)

Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroa	Itxaron ordua
6,4968	1,6269	21,7449

Tarifa 2

(** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomia eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan)

Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroa	Itxaron ordua
7,0743	1,8005	22,8652

BIGARRENA.- Tarifak onartzeko edo aldatzeko eskaera aurkezteko epea dela-eta, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

HIRUGARRENA.- Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoari helaraztea, hala badagokio, tarifak behin betiko onartzeko.

LAUGARRENA.- Jakinarazi akordioa interesdunei.

Mendaroko Udala

Herriko enparantza, 1, Mendaro. 20850 (Gipuzkoa). Tfnoa. 943033282. Fax: 943033281





499/2025 espedientea. Kreditu-aldaketak

Alde/ Favorable	Bozketaren mota/ Tipo de votación: Ahobatezotasuna/Onespena/Unanimitate/Asentimiento
------------------------	---

Egitateak eta zuzenbideko oinarriak/ Hechos y fundamentos de derecho:

Transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2025-KALD-000008-00 zenbakidun espedientea.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Ebazpena/ Resolución:

Lehenengoa.-Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

KAPITULUA	IZENA	EGUNGO KREDITUAK	MURRIZKETA	AMAIERAKO KREDITUA
1	Pertsonal gastuak	361.732,55	57.000	304.732,55
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	13.000	4.000	9.000
6	Inbertsio errealak	110.000	110.000	0
GUZTIRA		484.732,55	171.000	313.732,55

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

KAPITULUA	IZENA	EGUNGO KREDITUAK	MURRIZKETA	AMAIERAKO KREDITUA
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	422.735,67	147.000	569.735,67
4	Transferentzia arruntak	25.000	5.000	30.000
6	Inbertsio errealak	507.274,05	19.000	526.274,05
GUZTIRA		955.009,72	171.000	1.126.009,72

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailera Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

122/2024 espedientea. Lanpostuen zerrendaren aldaketa





Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento
------------------------	--

Egitateak eta zuzenbideko oinarriak/ Hechos y fundamentos de derecho:

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikularekin bat etorriz, administrazio publikoek lanpostuen zerrenden edo antzeko antolaketa-tresnen bidez egituratuko dute beren antolamendua, eta, gutxienez, lanpostuen izenak, lanbide-sailkapeneko taldeak, atxikita dauden kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak jasoko dituzte. Tresna horiek publikoak izango dira.

Lanpostuen zerrendak dira langileak antolatzeko tresna teknikoa, zerbitzuen beharren arabera eta lanpostu bakoitzean jarduteko baldintzak zehaztuz. Ildo horretan, Udaleko lanpostu guztiak hartuko ditu, bai funtzionarioenak, bai behin-behineko langileenak, bai lan-kontratuko langileenak, eta, horren bitartez, lanpostuak sortu, aldatu edo ezabatuko dira.

2025eko martxoaren 18an Udal Batzarrak Lanpostuen zerrenda aldatu eta besteak beste Gizarte laguntzaile lanpostua sortu zuela aztertu da. Gaur egungo ikasketak eta lanpostuaren terminologia eguneratu behar direla ikusita, lanpostu horren izena eta titulazioa aldatu eta lanpostuen zerrenda berriro onatzea proposatzen da.

Ebazpena/ Resolución:

LEHENENGOA. Udal honetako lanpostuen zerrenda aldatzea eta onartzea.

BIGARRENA. Zerrenda hori osorik argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren egoitza elektronikoan.

504/2025 espedientea. Etxez etxeko laguntza zerbitzua	
Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento

Egitateak eta zuzenbideko oinarriak/ Hechos y fundamentos de derecho:

Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek jasotzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko. Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELD) jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan. Bestalde, udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

Legearen eskumen-banaketaren arabera, zerbitzu hori udalaren eskumen-eremuan ematen bada ere, aipatutako legearen hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako euskal administrazio publikoen arteko finantza-berregokitzea egiten ez den bitartean, udalak, berak bakarrik, ezin du bere gain hartu Etxeko laguntza zerbitzuaren finantzaketa. Ez, behintzat, horrek intentsitate- eta estaldura-mailak murriztea ekarri gabe, aipatutako xedapen





iragankorrak berariaz debekatzen duen bezala.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileei ematen zaien arreta hobetzeko asmoz, 2018an lankidetzeta-hitzarmen bat formalizatu zuten, eta 2021eko irailaren 30ean amaitu zen haren indarraldia. Bertan, zerbitzua finantzatzeko sistema arautzen zen.

Mendaroko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileenganako arreta hobetzeko, eta eskumenen berrantolaketan urratsak emateko xedez, bidezkozat jo dute beste lankidetzeta hitzarmen bat sinatzea, zerbitzuaren finantzazioa sistema arautze aldera, 2021etik 2023ra doan aldirako.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Mendaroko Udalaren arteko hitzarmen honen xedea da dalerrian mendeko gisa kalifikatuta daudenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei ematen zaien Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzea, Erakunde arteko Mahaiak alde zuzenetik horren aldeko akordioa hartu ostean.

Arestian adierazi den moduan, indarrean zegoen hitzarmena 2023ko abenduaren 31n bukatu zen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat luzapen proposatu ditu. Azken luzapena 2025eko irailaren 30ean bukatzen da.

Puntu honetara iritsita, eta zerbitzua ematen jarraitzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak egokitzat jo du da hitzarmena urtebetez luzatzeko proposamena egitea, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era

Ebazpena/ Resolución:

Lehenengoa.- Urtebetez luzatzea Gipuzkoako Foru Aldundiak Mendarok Udalarekin Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) finantzatzeko formalizatutako hitzarmena, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era.

Bigarrena.- Alkate jaunari eskumena ematea hitzarmena sinatu dezan, zeina administrazio-argiri baten bidez formalizatuko baita.

Hirugarrena.- Akordio hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Mendaroko Udaleko Kontu-hartzailetza Sailari jakinaraztea, legez ezarrita dagoen eran; eta, halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki taulan eta Udalaren gardentasun Atarian argitaratzea

B) KONTROL-JARDUERA

ALKATETZA EBAZPENAK

Azken alkatetza ebazpenen berri ematen da.

C) GALDE-ESKEAK





Ez dago gairik/ No hay asuntos

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO
ELECTRÓNICAMENTE**

Baliozkotze Kod.: 9JX7A5ER6F2GPHAC27XOK5P7
Egiazapena: <https://mendaro.equitzaelektronika.eus/>
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 7

Mendaroko Udala

Herriko enparantza, 1, Mendaro. 20850 (Gipuzkoa). Tfnoa. 943033282. Fax: 943033281

